

Desklasifikatua

Zortzi urte nituen 1978ko sanferminetan polizia armatuak German Rodriguez gaztea hil zuenean. Hori buruz dakidana, hortaz, bigarren eskutik jasoa da. Zortzi urterekin, izan ere, udako kronikek ez dute festaren ezta dramaren kolorerik izaten, kresalaren usaina eta eguzkirako Nivea krema-kutxa urdinarenak baizik. Memoriarik izan gabe iritsi zaizkit, denboraren eta ahanzturaren zirrikituetatik gertakari horien oihartzunak.

Arteen grisak ziren tiro egin zutenak, geroago Polizia Nazionala bihurtuko zirelarik. Uztaileko arratsalde hartan zezen-plazara sartu ziren, presoen askatasuna pankarta soil ez aldarrikatzen zutenen kontra sua erabiliz. Ikartzeko modukoa izan omen zen, zaurituak nonahi, jendea korrika, izuturik. Berehala jakin zen triskantza horren berri Iruñea osoan, telefono super modernoaren beha-

rrik ez baitzegoen horretarako: ahotik ahora pasa zen, eta erdigu-nera zabaldu zen protesta ziztu bizian, gero eta bortitzagoa. Hiriko jaiak ziren, eta beraz, Iruñea jendez lepo zegoen (hori ez da asko aldatu urte hauetan guztietan). Nahas-mahas zebiltzan kaleetan bertakiek eta atzerriko festazaleak, gazteak eta zaharrak, makina bat haur ere taratean. «Ez izan hiltzeko beldurrik» esan omen ziren polizia agindua ematen zienteko batek, aste honetan bertan German Rodriguez gaztearen anaietako batek kontaktatu duenez. Kalapita honen erdian, izan ere, metrailadoreen tiro-segidatik batek buruan jo zuen hogeituroko gaztea. Zuri-beltzeko irudiak dira horren lekuko, eta baita bertan zirenen kontaktuzko lazgarria ere.

Joan den astean, Nafarroako Parlamentuan gertakari horiek ikertzeko eskarian bat egin dute ordezkatuta dauden indar politiko guztiek, Partidu Popularrak



ARKUPEAN
Pilar Kalitzada

Ez gara zortzi urteko ume mukizua, aspaldi utzi genion adingabe izateri, iragana ezagutzeko eskubideaz soildu egin gaituztenek nahi ez badute ere

izan ezik. Zehatzago esanda, egun horietan jazo zenaz dauden artxi-bo eta ikerketa guztiak desklasifikatzeko eskatu dute, 40 urte eta gero ondorio penalik izango ez bada ere, behingoagatik egia eza-gutzeko balio beza.

Lehen aldia da alderdi ia guz-tiek gisa honetako pauso bat elka-rrekin eman dutena. Ia horrek asko esan nahi duela irudituz, zait, ezezkora lerratu den alderdiaren isplua baita, aski argia.

Ni nintzen zortzi urteko umei orain ez zaio batere kostatzen gara horretako gertakariaren inguru-irudi koloreduna eskura-tzea, denborarekin, neke eta su-frimendu handiz bada ere, osatzen joan baita orduko gama kro-matika. Kontaktuzunaren lerroan, alta, hutsarteak daude, nabarmen askoak, gainera. Odo-lez ziprirtindutako argazkiak ikusten ditugu orain, zuri-beltze-koen aldean, eta dakigunaren apurrak nahikoak dira ia horrek

urte askotan ezkutuan gorde duen putzu beltzaren sakontasunaz oharitzeko.

Nafarroako Parlamentuko es-kariak 1978ko sanferminetako gertakariak desklasifikatzeko deia da, eta nahitaezko urratsa da, bide-luzeago baten hastapena izatea nahiko nukena. Iragana da behingoagatik desklasifikatu be-har duguna, ezagutzera eman eta argitara ekarri. Argi-fokua jarri zezen-plazako korridoretan ger-tatu zena ezagutzeko, jendartera tiro eginez hiltzeko beldurrik ez izateko agindu zuenari begietara begiratu ahal izateko, bide-bazte-rretan lurperaturik jarraitzen du-ten milaka kontakizunak entzun ahal izateko.

Ez gara zortzi urteko ume mu-kizua, aspaldi utzi genion adin-gabe izateri, iragana ezagutzeko eskubideaz soildu egin gaituzte-nek nahi ez badute ere. 63 urte be-teko zituen German Rodriguezek aurten. Erretiroa antolatzen has-tea zegokion, ez Orreaga etorbide-an, Entziroaren monumentua-ren ondoan, oroiarri baten izatea. Egia ezagutzera dagokigu, ez iraga-nari zirrikitu batetik begiritzea.

ZUZENDARIARI

Negu harrigarri bat

Behin Arbizun Etxarriko batek hama-bi txito lapurtu omen zuen. Harrez-kero lapurrari Pio XII deitu omen zioten, «Pio Doze» erdeinu irrigarria ahoskatu-rik. Arbizukoek ez zuten Guardia Zibiler-a jo justizia eske, inor ez baita eguerdian ilargi bila abiatzen. Nolanahi, etxarriar horri zigor gogorra ezarri zitzaion: etxetik zetorkin izena –goitizena– herriak baz-tertu eta, harrezkeroztik Pio XII ezinez ezaguna izan baitzen Sakana osoan. Zigor latza, isun bat ordaintzea baino askoz ere latzagoa, inondik ere.

Negu harrigarri honetan, hamabi txita ez, baizik eta hamaika ikusteko jaiok garenez, Iberian hiru hamarkada lanean emanda, Guardia Zibileren «mando» batek, mendekuz eta azpikeriaz, hegan egiteko baimena atzera bota dio Patxi Zamorari, Nafarroako Kutxa auzian ustel-keria salatzen hainbeste lan egin duen Kontuz elkarteak eledunari. Zorionez, Patxi Zamora ez da besoak antxumaturik geldituko den horietako bat, eta badakit imokj jarraituko duela ikertzen eta ustel-keria salatzen.

Joan Margarit poeta katalanaren *Un hivern fascinant - Negu harrigarri bat* liburu atera berrian bada Finalitats izene-ko poema bat, eta amaiera, hauxe: «Ahanzturak ez nau sekula errugabe bihurtuko. Ezjakintasunak, aldiz, beti bihurtzen nau errudun». Hainbeste urtez eskularru zuriko politikari ustel-ekin

dakoa jakin behar da, ez baikara hamabi txito txikiz mintzatzen ari. Egunen bate-an, Patxi Zamora eta bera bezalako jende-ari esker jakin, jakinen dugu. Eutsi goiari **Josu Jimenez Maia**. Idazlea.

Eneko Goiari erantzunez

Txillardegiz egindako zure adierazpe-nak direla eta, eta ezagutzen ez zaitu-dan arren, nire haserre agertuko dizut. Min handia eman dit Txillardegiz duzun iritziak.

Bai jauna, guztiok dakigu Txillardeg-i ETaren sortzailetakoa izan dela eta hori sekula ez zuen ezkutatu. Eta ETaren his-toria pixka bat jakingo bazenu, jakin beharko zenue sortzaile hauen helburua ez zela inor akabatzea izan, gizarte itoga-ri hura eraldatzea baizik, ikusi besterik ez baitago zein izan zen Txillardegiren ibilbidea ETan.

Ez dut ulertzen zer adierazi nahi duzun zentzurik gabeko argudio merke horre-kin. Akaso gaurko EAJk badu antzekota-sunik sorrerakoarekin, ala? Zure alderdi-kideek ez al zuten inoiz armarik erabili? Bada, begiratu besterik ez duzu hemero-tekan, eta ikusiko duzu Egibarrek inoiz egindako deklarazioarekin argitaratutako artikulua BERRIAN: «Guk ere erabili izan

ditugu armak». Eta ikusi oraindik orain Aranzadiko Javier Bucos Cabellok idatzi-tako liburua zer dioen (*Eusko Gudaros-tea*, Azpeitia 1936, 87.or.): «*El deber del gudari consiste en; en marchar cuando se le dice marcha; en pegar cuando se le dice pega; en matar cuando se le dice mata; sin preocuparse de saber donde va, a quien pega, a quien mata*». Hori guztia irakurri ondoren, gogoratu al zaizu EAJren sortzaile izan ziren Arana Goirita-rrak deitoratzea? Ez horixe! Haiek Funda-zioa, kalea Bilbon eta behar diren ome-naldi guztiak jaso dituzte.

Beraz, bai gudariek, polimiliek, PSOE-koek, PCKoek, frankistek... guztiak erabili izan dituzte armak, eta geroztik gober-nuan agintzen eta demokrazia lezioak ematen ari izan zaizkigunak guztiok eza-gutu eta ezagutzen ditugu. Eta, hala ere, batzuek kaleak, eraikinak eta abar dituzte euren izen-deiturekin.

Adibide bat jarriko dizut. Koldo Mitxe-lena hizkuntzalaria gudaria izan zen gerra garaian; armak erabiliko zituen noski, eta Donostiako liburutegiak bere izena dara-ma; zenbait herritako kalek ere bere izena daramate euskara eta hizkuntzaren alde egindako lanaren errekonozimendu gisa, normala den bezala, jakina. Eta zure agintepeko kalek frankista horien izena jartzeko zer egin zuten Euskal Herriaren alde?

Nik Txillardegiko oso gertutik ezagutzeko eta bere ikasle izateko zortea ere izan nuen zorionez, eta oso-oso persona gutxi izango dira bere herria hainbeste maite izan eta bere alde hainbeste lan egin duten intelektualak, hots, bere jakinduria mailakoak, ikusi besterik ez baitago zer nolako idatzizko ondarea utzi duen. (Ikus www.jakin.es)

Ekimen askoren sortzaile, baina garrantzitsuenetakoa euskara batuaren sorrera izango genuke, berari esker baitu-gu daukagun euskararen batasuna. Txil-lardegik ikusi zuelako hizkuntzaren batasuna ezinbestekoa zela euskara biziko bazen, arauak planteatuz eta geroxeago Euskaltzaindiak Arantzazun berretsiko zituenak (Ibon Sarasolak argi eta garbi esan zuen bezala omenaldi egunean); beraz, euskararen batasunaren «aita» Txillardegiko da, nahiz eta K. Mitxelenak bultzatu zuen Arantzazuko bilkuran, Txil-lardegi ezterrian zegoelako garai hartan. Honetxegatik bakarragatik merezi du guztion esker ona.

Beraz, Euskal Herriak asko zor dio Txil-lardegiko eta zer hobeto, berandu bada ere, bere herriaren errekonozimendua jasotea baino. Ze pena eman didazun zure jarraitzailekin Txillardegian lan eraldatze-ko agertu duzun ezjakintasunaz! Donostiako alkate zarenaz, harro egon behar zenuke horrelako hizkuntzalaria herriki de izate-az. Bartzertu koldarkeria eta bete euskal herritarren eskaria.

Zain gaukaz. Adefatasunez.
Agustina Pontesta Garmendia. Lezo.

BERRIAK irakurlearen eskutikatzatuzatzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak bane, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazi: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutikatz Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.eus.